

Euskararen aldeko festa koloretsua

Zabalik egitasmoaren ospakizuna larunbat honetan, Aita Larramendi ikastolako, La Salle Berrozpe ikastetxeko eta Leizaran institutuko gazteen parte-hartzearekin / 16

**Euskara,
Beterri-Buruntzan
Lanbide Heziketatik
lan mundura
murgiltzeko zubia** / 2-3

**Aurrera Gure Ametsa
taldeak erromeria
antolatuko du
Urnietan, datorren
maiatzaren 5ean** / 5



Santakruzak iristeko atzera zenbaketa hasi da

Maiatzaren 2an hasiko diren arren, atariko ospakizun modukoak izango dira larunbat honetako gazteen ospakizuna eta maiatzaren leheneko krosa / Gehigarri Berezia

AIURRI

Gora Santakruzak!

Gozatu jaiaz, baina ez izan konplize!
Jaietan eraso sexistarik ez!

ANDOAINGO
UDALA

Aritz Lasarte USURBIL


Enpresen beharren aurrean, euskarak paper garrantzitsua jokatu du. Lantegi askok, euskaraz ikasi duten ikasleak nahi eta behar dituzte. “Enpresa askok ikasle elebidunak eskatzen dizkigute. Kontuan izan, inguruetako enpresen bezero asko euskalduna dela”, Usurbilgo Lanbide Eskolatik gaineratu digutenez. Nazioartekotze prozesu betean diren lantegiok, “hizkuntzak menderatzen dituzten langileak nahi dituzte. Zentratu eta hizkuntza gehiago menderatu, hobeto”. Eta tartean noski, “ikasleak euskara mendera dezala, enpresa askotako eskaera izaten da”.

Lan eremuaren arabera ordea, panorama aldatzen da. Leizaran institutuan gizarteratzearen inguruko goi mailako heziketa zikloa eskaintzen dute, D eremuan. Bada euskarazko langileen eskaria; “hezkuntza-laguntzako espezialista izateko, menpekotasunarekin lotutako lanpostu batzuetan ere bai, baina harre-egoitzetako hezitzaileen laguntzaile izateko lanpostuetan ez”.

Baliabideak euskalduntzen

Egungo lan munduko erronka eta beharrei erantzuteko euskarazko eskaintzaren aldeko apustua egiten da Buruntzaldeko ikastetxeetan. “Lanbide Heziketa beti saiatzen da enpresari erantzuna ematen”, Usurbilgo Lanbide Eskolatik adierazi dute.

Horrek noski, lanketa handia eskatzen du, baliabideen ikuspuntutik. Azpimarratzekoa da zentzu honetan, Laneki proiektuak Lanbide Heziketan ikas-material didaktikoak euskaratzen egiten duen ekarpena. Eta ondorioz, hezkuntza eskaintza hau



Maitatza amaiera aldera irekiko dute matrikulazio epea Lanbide Heziketan. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Euskara, Lanbide Heziketatik lan mundura murgiltzeko zubia

2018-19 ikasturterako matrikulazio epea zabaltzeko hilabete inguru falta denean, hedabideetan bolo-bolo dabil albistea: bertako enpresek lanbide heziketako ikasleak behar dituzte lanerako. “Egia da. Behar handia dago”, diote eskualdeko adituek

euskalduntzen dihardu. “Beti saiatzen gara material berria euskaratzen. Lan handia da”, adierazi digute Usurbilgo Lanbide Eskolatik.

Azpimarratzekoa esaterako, Leizaran Institutuan izan duen eragina. “Gure Gizarteratze departamentua aitzindaria izan zen gure zikloko euskarazko materiala Laneki/Jakinbai web-orrian argitaratzen. Hainbat lan, itzulpen eta irakasleen IRA-LE euskalduntze programaren bidezko R-400 ikastaroaren bidez ere gure ekarpena egin dugu”.

Aurretik eginiko ibilbidearen eragina

Eskaintza eta baliabideak badaude euskaraz, euskaraz ikas-teko eskaera ere badago eta. Belaunaldi berria geroz eta euskaldunagoa da eta horrek isla argia du D eredia eskaintzen duten ikastetxeetan. Usurbilgo Lanbide Eskolan esaterako, “geroz eta ikasle gehiagok eskatzen du euskaraz ikastea”.

Mailaren arabera ordea desberdintasunak nabari dituzte, esaterako, Hernaniko Lanbide Heziketan. Goi mailako zikloetan bai, eskari handia dute. Aldiz, Oinarrizko Lanbide Heziketan, euskaraz ez dakiten ikasle bat baino gehiago dute, gerora erdi mailara igarotzen direnak. “Ez dago laguntzarik ikasleok euskaraz ikasi ahal izateko” eta horrek “erdi mailan eragiten du”. Talde mistoa dute mekanizazio ikasketetan. Alde horretatik garrantzizkoa deritzote Hernaniko Lanbide Heziketako ikastetxetik, erdi eta goi mailako zikloetara heldu aurretik, “ikasleek egiten duten bidea euskalduntzea, Lanbide Heziketara heltzean euskararen erabilpen handiagoa egon dadin”.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Umietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Umietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ZIURTAGIRIA: Birkarn

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

B eredia

D ereduaz gain, Buruntzaldeako ikastetxeetan bada euskara nerri batean txertatua duen B eredia ere. Kasuotan, “moduluen %25a euskaraz bermatua egon behar du”, Urnietako Salesiarren ikastetxetik zehaztu digutenez. Bada ezberdintasun nabarmen bat, ikastetxe publiko eta kontzertatuen artean. “Kontzertatuak oso mugatuak geratzen gara, euskara ehuneko ehunean bermatzeko”. Andoaingo La Salle-Berrozpetik gaineratu digutenez, “publikoek euskarazko taldeak sortzeko desdobleak dituzte. Ikastetxe kontzertatuetan ez dugu halako baliabiderik”.

Eta ondorio argia du horrek. La Salle-Berrozpen aurreko etapetan D ereduan ikasi duten ikasleak dituzte Lanbide Heziketan. Baina hauez gain, badira kanpotik bertara ikastera datozenak ere, oso profil ezberdinekoak, “batzuk euskara maila ona dute, beste batzuk aldiz, ez”. Testuinguru honetan, “taldeak desdoblazteko aukerarik ematen ez digutenez, gure erronka, per-

fil ezberdin horiek talde berdinetan txertatzea da, horretara behartuta gaude”. B eredia euskalduntzen ahalegintzen dabilzala gaineratu digute, “plangintza egina dugu eta garatzen ari gara”.

Buruntzaldeako Lanbide Heziketako ikastetxeek erronka gehiago ere badituzte. Andoaingo Leitzararen, “erabiltzen dugun material gehiago euskaratzea da gure helburuetako bat, eta metodologia berri aktibo-kolaboratiboetan sartzen ari garenez, egiten ditugun erronkak euskaraz egitea da gure helburua”.

Etengabe berritu, eguneratzea aipatzen dute Usurbilgo Lanbide Eskolatik, helburu argi batekin; euskaraz ikasi nahi duten guztiei erantzun ahal izatea.

Euskalduntzen segitzeko lana

Erreportajearen zehar argi geratzen moduan, bada euskarazko eskaintza Lanbide Heziketan Buruntzaldean. Euskara ikastea ezinbestekoa da, lan merkatuan ate gehiago zabaltzeko. Baina oraindik bada zer egina Lanbi-

de Heziketa guztiz euskalduna izateko bide horretan. Eta horretan dihardute bai ikastetxeek, baita Buruntzaldeako tokiko erakundeek. Andoaingo, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako euskara batzordeek urteak daramatate Lanbide Heziketan ere euskara bermatua egon dadin lanean. Tartean, ikasmateriala euskaratzen duen Laneki egitasmoa diruz laguntzen. Aurtun, 8.000 euro bideratu dituzte proiektu horretara. Aurrematrikulazio kanpaina gerturatzen ari den honetan, urtero moduan, herritarrak ikasketok euskaraz egitera animatzen dituzte.

D ereduan ikasteak, hainbat abantaila eskaintzen baititu. Euskaraz ikasten segitzeko aukera izatearekin batera, bi hizkuntzetan lan egiteko prestakuntza jaso daiteke Buruntzaldean. Eta ikasketak euskaraz eginez gero, erdi mailako zikloetan B-1 eta goi mailako zikloetan B-2 euskara ziurtagiriak eskuratu daitezke azterketarik egin gabe.

D eredia Buruntzaldean**ANDOAIN****Leizaran Institutua:**

Goi maila: gizarteratzea.

Informazio gehiago:
leizaran.hezkuntza.net
943 300 078.

La Salle-Berrozpe

Goi maila: fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa.

Informazio gehiago:
lasalleberrozpe.eus
943 590 557.

URNIETA**Salesiar ikastetxea**

Informazio gehiago:
urnietakosalesiarrak.com
943 551 789.

HERNANI

Erdi maila: mantentze-lan elektromekanikoa.

Goi maila: sistema elektroteknikoak eta automatizatuak; fabrikazio mekanikoko diseinua; animazio soziokulturala eta turistikoa.
Informazio gehiago:

hernanilh.hezkuntza.net
943 551 958.

USURBIL

Erdi maila: administrazio kudeaketa, instalazio elektriko eta automatikoak; mekanizazioa; hozteko eta girotzeko instalazioak.

Goi maila: administrazioa eta robotika industrialia; energia eraginkortasuna eta eguzkia-energia termikoa; fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa; instalazio termiko eta fluidoen mantenimendua.
Informazio gehiago:
lhusurbil.eus
943 364 600.

INFORMAZIO**GEHIAGO:**

ikaslan.net
hetel.org
buruntzaldea.eus

2018 / 2019

11 aukera,
Lan

LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ
AUKERATU Lanbide Heziketa EUSKARAZ

BILATU gustukoa duzun zikloa eta HAUTATU EUSKARAZKO EREDUA!
Arlo guztietan izango dituzu aukerak:

- ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA
- ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA
- GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK
- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ENERGIA ETA URA
- INSTALAZIO ETA MANTENTZEA
- OSASUNGINTZA
- NEKAZARITZA

Informazio gehiago:
www.ikaslan.net (ikasleak publikoak)
www.hetel.eus (ikasleak pribatuak)

Lapparen kantu berriak Sarobeko taula gainean

'Polisemian' disko berriko kantuak eskainiko dituzte ostiral honetan, Saroben, gaueko 21:30ean hasita. Etxekoen eta herrikideen aurrean denez, emanaldi berezia izango da Urnietako hirukotearentzat. Sarrera doakoa da

Amaia Senperena URNIETA

Eneko Zulaika kantariak, Eneko Bustillo bateria-jotzaileak eta Endika Garcia baxu jotzaileak osatzen dute Lappa taldea. Kontzertuaren atarian, hauexek hirukotearen sentsazioak.

Denbora luzean aritu al zarete disko berriaren sorkuntzan?

Bustillo: Prestakuntzak, egia esan, ez digu denbora asko kendu. Estudioan sartu eta bertan egin dugu lanik handiena. Zulaika: Esan genezake abestiak sortzen joan garen heinean diskoa ekoizten joan garela.

Eta ostiralean Saroben aurkezteko zer esan nahi du zuentzat?


Zulaika: Egon daitekeen tokirik aproposena dela guretzat. Etxean jotzen dugu eta entseatzeko dugun lokalaren gainean, gainera. Garcia: Gogoia genuen Saroben jotzeko. Iaz ere bertan jo genuen, baina ez kontzertu honetan erabiliko dugun maila teknikoarekin. Gainera, gu izango gara kartelburuak. 'Physis versus nomos' talde donostiarrak joko du gure aurretik, eta jarraian gure txanda iritsiko da.

Zein estilotan kokatuko zenukete egiten duzuen musika?

Zulaika: Gure sare sozialetan izendatu dugu gure estiloa; Pop, metal, ska, emo, trap...., Egia da orain maiz jotzen dugula pop metalera, bertan alderdi lasaia eta alderdi gogorra jorratuz. Hori gustatzen zaigu guri, denetarik musika uztartzea.

Garcia: Oso ondo pasatzen dugu jotzen eta jendea egiten dugunarekin disfrutatzen ikustea da gehien gustatzen zaiguna. Agian, gure kontzertuetara etortzen den jendea ez duzu beste hainbat kontzertutan bezain motibatua ikusiko, baina, irribarretsu eta egiten dugunaz disfrutatzen ikusten ditugu.

Basoa bideoklipa bistaratu duzue. Zer nolakoa izan zen grabazio prozesua?



Disko berriena aurkeztuko dute ostiral honetan, Saroben, 21:30ean hasita. AIURRI

"GURE ZALETUAK IRIBARRETSU ETA EGITEN DUGUNAZ DISFRUTATZEN IKUSTEN DITUGU"

Bustillo: Pasada bat. Bizkaia aldean grabatu dugu eta argi genuen ez genuela instrumentuak jotzen atera nahi. Istorio bat kontatu nahi genuen eta niretzat pertsonalki oso esperientzia ederra izan da. Jon Etxeberria urnietarrarekin grabatu genuen eta ikaragarria izan da bizi izan genuena.

Zein da oraintxe musikari gisa duzuen helbururik handiena? Noraino iritsi nahi duzue?

Zulaika: Orain gutxi inguruko herri batean jotzeko deitu gaituzte eta horrelako gauzek ilusio handia egiten digute. Niretzako helburua jendeak egiten dugun musikarekin gozatzea da, eta ahal dela pixkanaka jende gehiagorengana iristea. Hori bai, lehenik gu gustura egotea eta gero publikoari gustatzea.

Garcia: Nire aldetik, batez ere musika egiten jarraitzea.

"SAROBEN ANTZOKIA DISKOA AURKEZTEKO EGON DAITEKEEN TOKIRIK APROPOSENA DA GURETZAT"

Zer esango zenikete zuen kontzertura joan nahi duenari?

Garcia: Urnietan denok ezagutzen dugu elkar. Lehen, Saroben hilabetero kontzertu indartsuak egiten ziren. Baina bada bolada bat bertan kontzerturik egiten ez dena, eta espero dugu gure kontzertuarekin ekimen horri jarraipena ematen jarraitzea. Jendea animatu nahi dugu, guztion artean Sarobera kontzertu gehiago ekar ditzagun.

Zuen helburua ondo pasatzea dela esango zenukete, beraz?

Garcia: Bai, baina ez dugu horretara mugatu nahi. Beste soinubatu bat bilatuz jautzia eman dugula esan genezake. Zulaika: Endika taldean sartzeak asko lagundu du soinubatu berri hori bilatzeko garaian. Diskoa grabatzerakoan baxua txertatzea erabaki genuen, eta geroztik Endika taldekide dugu.



Ostegunean eta ostiralean asfaltatze lanak egin nahi dituzte Isidro Setien kalean.

Asfaltatze lanak burutzeko errepide mozketak, herrigunean

Geltoki eta Isidro Setien kaleetan asfaltatze lanetan arituko dira, egun hauetan

Erredakzioa URNIETA

Geltoki kaleko aldapa osoa asfaltatzen ari dira, astearen hasieratik. Zehazki, Kantoitabernatik hasi eta Riojano tabernaraino doan errepide zatia asfaltatu behar dute. Ondorioz, lanek iraun bitartean, ezingo da ibilgailuarekin bertatik igaro. Lanek eragina izango dute bolatoki ondoko aparkalekuan. Izan ere, bertatik ezingo dira ibilgailuak atera. Beste horrenbeste gertatuko zaie asfaltatzen ari diren kaleko 1, 3 eta 5 zenbakien artean garajea duten herritarrei. Udalak oharatarazi die, ibilgailua

behar izanez gero, hobe dutela ibilgailua beste lekuren batean aparkatzea.

Isidro Setien kalea

Aurreikuspenak betez gero, asfaltatze lanek jarraipena izango dute Isidro Setien kalean. Zehazki, Erratzu tabernaren paretik hasita. Lanak, ondo bidean, apirilaren 26an edo 27an burutu nahi dituzte.

Herriguneko errepideen asfaltatze lanak astelehenean hasi ziren, Goi-mendi tabernatik Eteneta elkarteruntz doan errepide zatian.



AIURRI

Uda giroko ospakizuna

Hamabost urte bete dira Poxta Zahar gazte elkarteak abiatu zenetik, eta joan zen larunbatean egun osoko ospakizuna antolatuta zuten Urnietan. Pozarren egon daitezke antolatzaileak, eguraldia bikaina izan baitzen. Uda giroko ospakizun horien antzekoa, hitz gutxitan laburbilduz. Horri esker, esaterako, Lear taldearen emanaldia -argazkian- plazan bertan egin zuten.

SANTA KRUTZ JAIAK 2018 ANDOAIN



Gora Santakruzak

LI
Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia 6
Andoain
Tel. 943591224

ATARIKOAK ETA EGITARAUA

APIRILAK 28

- 12:00** Triki-poteoa, Zumean hasita.
- 14:00** Bazkaria Bekoplazan.
- 17:00** Herri kirolak, Zumea plazan.
- 19:00** Elektrotzaranga.
- 22:30** Parrapas, Dj Txurru.

MAIATZAK 1

- 10:30** Kros herrikoa Zumea plazan, Bixente Huizi memoriale.
- 11:30** Hour krosa Zumea plazan.
- 12:00** Txirrindularien lasterketa Leizaur parke inguruan.

MAIATZAK 2

ASTEAZKENA, JAIEN HASIERA

- 16:00** Hour pegoia Zumea plazan.
- 16:30** Txokolatada, judoa eta karate erakustaldia Zumea plazan.
- 18:30** Puzgarriak Zumea plazan. Euriarekin Ondarretan. Segidan buruhaundi eta erraldoiak, Zumea plazatik hasita.
- 19:00** Gora Kaletxiki txaranga, Basterotik hasita.
- 19:00** Zumeatarra elkartaren danborrada.



Zumeatarra elkarteak Zubiaurre etxean ekingo dio danborradari. AIURRI

- 19:30** Pegoia Zubiaurren.
- 20:00** Txoznen irekiera.
- 20:00** Herri kirolak Bekoplazan.
- 21:30** Zezen suzkoa, Zubiaurren hasita.

MAIATZAK 3

OSTEGUNA, SANTA KRUTZ EGUNA

- 10:30** Dultzaineroak kalean zehar.

- 10:30** Ikurriñaren jaitsiera.
- 10:30** Ezpata-dantza Santa Krutz elizan.
- 11:00** Meza Santa Krutz elizan.
- 11:30** Ezpata-dantza eta ondoren Brokel-dantzak.
- 11:30** Andoaingo trikitilariak.
- 12:00** Txakoli dastaketa Santa Krutz parean.
- 16:30** Hour jolasak Zumea plazan.

18:30 Andoaingo Udal musika eskolako Konboak: Txukuna taldea eta Fino's band Zumea plazan.

19:00 Pintxo-pote musikala kalean zehar.

19:00 Tabernen arteko pintxo lehiaketa.

MAIATZAK 4

OSTIRALA, KOADRILEN EGUNA

- 11:00** Koadrilen arteko jokoak, Bekoplazatik.
- 14:30** Koadrilen bazkaria Bekoplazan. Euriarekin, Makaldegian.
- 17:30** DJ Bull-ekin kalejira.
- 18:30** Bizikleta festa Zumea plazan.
- 20:00** Olagain txistulari elkartaren eta Alberto Agirre abesbatzaren kontzertua Santa Krutz elizan.

Ernaitza
liburudenda

Liburu, joku hezitzaile eta oparietan aukera zabala

Ondo pasa Santakrutzetan!

Zumea, 9 ANDOAIN. 943 592 459 - ernaitza@yahoo.com

Goizeko 06:00etatik aurrera irekita

urkiola
TABERNA

Etorri eta dasta itzazu gure tabernako pintxo goxoak!

Kale Nagusia, 19 - Andoain
943 32 56 58

"Ondo pasa Santakrutzetan!"

zeru

Zumea plaza, 6 behea
943 59 37 17 ANDOAIN

f TABERNA ZERU **Gora Santakrutzak!**

Gora Santakrutzak

BELKOAIN

Fisioterapia zerbitzua
Saltoa Audikana Anso
Aitor Sarasola Astigarraga

Eskola kalea, 6-atzealdea
8. lokala: Andoain
943 591 202

SALDIAS
ARRANDEGIA

Ondo pasa festetan!

ZUMEA KALEA, 5
ANDOAIN
943 590 704

20:30 Karaokea txosnatan.

23:00 Koban, Egurra ta kitto txosnatan. Pintxada feminista.

MAIATZAK 5

LARUNBATA

08:00 Gaupaseroen argazkia Espigoian.

09:30 Haurrentzako arrantza lehiaketa Espigoian.

10:00 Artisautza azoka Zumea plazan.

11:30 Urkiren saioa Zumea plazan.

12:00 Bertsolari eta txalaparta kalejira Zumea plazatik.

12:00 Kantujira Basterotik hasita.

14:00 Auzo bazkaria Kale Nagusian. La Jodedera.

17:30 Erreka jaitsieraren iritsiera. Parte hartzaileen hitzordua 16:00tan Bekoplazan.



Pintxo lehiaketa, aurtengoan ostegunarekin izango da. Ez ohiko pintxo potea, beraz.

18:00 Hur jolasak Zumea plazan.

19:00 Bakailao txapelketa Kale Nagusian.

19:00 Burrumba elektrotzaranga.

21:30 Zezen suzkoa, Zubiaurren hasita.

22:30 Peña Santa Krutz elkartearen danborrada.

00:00 Rukula, Atom Rhumba, Ingo Al Deu? taldeen kontzertuak txosnatan.

MAIATZAK 6

IGANDEA

09:00 Euskaldunaren mendi irteera. Egoitzan hasi eta Zumea plazan bukatu.

12:00 Sagardo lehiaketa Zumea plazan.

12:00 Basataloak Zumea plazan.

13:00 Andoaingo Udal musika banda eta Mugaz taldea, Juanita Alkain plazan.



Sagardo lehiaketa Zumea plazan, Zumeatarra elkartearen eskutik.

17:00 Soinuak taldearen kalejira Basteron hasita.

18:30 Herri danborrada, Bekoplazan hasita. Azken entsegua apirilaren 26an, 20:30ean, ohiko tokian.

18:30 Txili Pipar, Hail Noise, Dukkha eta Malkogariyak herriko taldeen emanaldia Bekoplazan.

19:00 Plaza dantzak, Udaberriko fanfarrearekin, Zumea plazan.

Jarraipen zehatza

Aiurriko webgunean eta Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan jaien jarraipen zehatza egongo da, egunez eguneko egitaraua zabalduz eta egun bereko zein aurreko ospakizunetako argazkiak eta bideoak eskegiz.

GORA SANTAKRUTZAK!!

Amalia

ESTETIKA

- Depilazio elektrikoa eta laserra
- Presoterapia
- Aurpegirako tratamenduak: C bitamina

Kale Nagusia, 49 • ANDOAIN • Tel.: 943 300 669

100 garagardotik gora dastatzeko aukera...

Artisau garagardo goxoenak giro eta musika paregabe.

Zumea kalea 4. ANDOAIN

Gora Santakruzak!

DANENA

Ondo pasa Santakruzetan!

Eguneko menua
Plater konbinatuak
Bokatak

f

Zumea, 22 - Tel.: 943 590 210 - Andoain

Aita Larramendi Ikastola

Jaietan ere ekin euskaraz

Gora Santa Krutzak

AITA LARRAMENDI IKASTOLA
 Txostoki Pasealekua, zig 20140 - Andoain
 Tel.: 943 593 525 - Fax: 943 590 390
 andoain@ikastola.eus
 www.andoainikastola.eus

Maiatzaren 3ko izarrak

Aurtengo pregoilariak Santa Krutz egunean urtero-urtero irteten den koadrilako kideak izango dira. Sorrerako urte haiek gogoan, Urangako Mertxeri gorazarre egingo diote

Olatz Lasa ANDOAIN

Santa Krutz eguna, maiatzaren 3a, iristear da. Andoaindar askorentzat egun berezia da. Horien artean, bereziki, bluxa zuri-berde kuadroa soinean daraman koadrila. Aurten, gainera, eurek emango diote hasiera jaiari. Hots, Alberto Santa Cruz, Xabier Unzalo, Fernando Hernandez, Javier Zabala eta konpainia. "Jai batzordeak pregoilari kargua guri eskaintzeak badu gure aldeko miresmen puntua", horixe Santa Cruzen lehen burutapena.

Egun sakratua da eurentzat Santa Krutz eguna, eta oraindik ere kirioak dantzan edukitzen dituztela dio Xabier Unzuluk. 41 urte daramate elkarrekin, eta lanean guztiek ere jai hartzen dutela adierazi dute, asteko egu-

na izan nahiz asteburua izan. Batzuk Andoainen bertan bizitzen jarraitzen dute, baina beste batzuk herritik kanpo bizi dira. Hori dela eta, urte osoan ikusi ez dituzten lagunekin egoteko hitzordua da maiatzaren 3koa. Garrantzitsuena koadrila elkaturik mantentzea dela azpimarratu dute. Joanak diren hiru lagun omentzen dituzte: "Ez gaude guztiok, hiru bidean geratu dira eta urtero brindis batekin gogoan hartzen ditugu".

Sorrera Uranga tabernan

Hasierako urteetan Zumea kaleko Uranga tabernan bazkaltzen zuten. Santa Krutz eguneko ospakizunaren sorburua, beraz, bertan kokatzen da. Etxean bezala ibiltzen zirela oroitzen dute, bertako Mertxe etxeoandrea

gogoan hartzean: "Baten bati eskerrak eman behar badizkiogu, hura Mertxe da. Hark maite gintuen, asko". Pregoirako prestatzen ari diren adierazpenean gogoan hartuko dutela aurreratu dute. Bertsolari arituko direla ere aipatu dute.

Egun osoko plangintza

Modu beretsuan ospatu ohi dute, urtez urte, Santa Krutz eguna. Lehenik, hamaiketako ederra egiten dute Errekaburu elkartean. Bazkaria, berriz, Zumeaterra elkartean. Menua, klasikoa: Urdaiazpikoa, pate, zainzuriak, errusiar entsalada, legatza labean, solomilloa piparrekin, pastelak, kafea eta kopa. "Bazkaldu eta gero kalejiran irteten gara trikitilari eta panderojoleen



Fernando Hernandez, Xabier Unzalu, Alberto Santa Cruz eta Javier Zabala. AIURRI

laguntzarekin". Musikaren konpainian, Zumeatarratik Peña Santa Krutz elkartearaino joaten dira. Tartean, noski, betiko tabernetan geldialdiren bat edo beste eginaz. Afaltzeko berriro ere Zumeatarra elkartera hurbildu ohi dira: "Gauerdian, ohitura da Zumeatarrako bandera jaistea. 25 urte daramatzagu zeremonia horretan".

Urteurren berezia

Urteurren borobilak edo bereziak izaten direnean, oparitxo batzuk egiten dituzte koadrilako kide

guztien artean. Iaz, esaterako, koadrila modura Santa Krutz egunean irteten 40 urte bete zituzten, eta partaide bakoitzarentzat txapel handi bana egin zuten. Beste urte batean, norberaren izena idatzita daraman kamiseta eta ordularia oparitu zieten elkarri. 50. urteurrena oraindik urrun samar dago, baina ordurako ere zerbait prestatuko dutela dudarik ez dute. Hori iritsi bitarte, asmo ederra dute: koadrilak elkaturik eta giro onean jarraitzea. Santa Krutz egunean, nola ez.

Auzoen arteko desafioa

Andoingo auzoen arteko kirol lehia da aurtengo jaiak dakarren berrikuntzatakoa. Pregoiaren ostean, herri-kirol desafioa iragarrita dago Bekoplazan

Xabier Lasa ANDOAIN

Urtean zehar jaiak ospatzen dituzten auzoek hiru probatan neurtuko dituzte indarrak, Santakruzetan: ergometroa, trontza eta ingudea. Taldeak, berriz, zazpi izango dira: Santa Krutz, Goiburu, Kaletxiki, Buruntza, Etxeberrietta, Karrika eta Sorabilla. Aurreko urtetan jokatu izan dira auzoen arteko lehiak, Kaletxiki eta Goibururen artekoak hain zuzen. Baina lehenengo aldia izango da auzo guztiak elkarren arteko norgehiagokan jarduteko biltzen direla.

Liga sistema

Liga moduko txapelketa jokatzeko erabaki dute. Santakruzetan emango zaio hasiera lehiaketari, eta finala Sorabillako jaietan ospatuko da.

Makina bat herri-kiroletan neurtu beharko dituzte indarrak kirolariak; hiru probetan, auzo bakoitzean egingo den saioan. Santa Krutzetarako ergometroa, ingudea eta trontza hautatu dituzte; hurrengoetarako lokotxak, sokatira, harri-jasotzea, pirrinka, karretila karrera, kixkia, txingak, lasto altxatzea...

Auzo taldeak osatzen

Andoainen jai giroa bultzatzeaz gain, herri-kirolariak bultzatzea eta herri-kirolari trebatuak ez diren auzotarrak plazara eramatea. Azken bi helburu horiekin asmatu nahi luke Andoingo Auzoetako Jai Batzordeak, eta bere kideak azken asteetan buru-belarri dabilta auzo bakoitzak bere kirol ordezkariak eduki ditzan. Antolatzaileetako

bat den Etxeberrieta auzoko Delan Irazuk aitortu du nahikoa kosta zaiela taldea osatzea. "Gazteek lehenbizikoak behar luke izan herri-kiroletan parte hartzeko orduan, beraiek direlako sasoian daudenak. Baina ez dago erraza horiek konbentzitzen. Kirolari onak dauzkagu auzoan, baina ematen du futbola besterik ez daukatela buruan. Konturatzen ari gara gure atetik datozen belaunaldiek herri-kirolak ez dituztela behar bezala ezagutzen, eta erreparoa ematen diela horiek praktikatzeko, nahiz eta gure ekitaldia guztiz herrikoia izan".

Zailtasunak zailtasun, auzo gehienek osatu dituzte kirol taldeak, eta dagoeneko denbora puska daramate prestaketa lanetan.



Ekaitz Olló Tolo eta Delan Irazu antolatzaile eta parte hartzaileak. AIURRI

KUKUTEI
HARATEGIA - URDAITEGIA

ONDO PASA JAIETAN

Hautatutako produktuak

Kale Nagusia, 59
943 593 152
ANDOAIN

Urrats
inprimategia

Bai enpresa handiek eta bai negozio txikiek publikitatearen neurria egiteko aukera. Kalitate altuko inprimatze digitala. Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe.

www.urratsinprimategia.com

Zumea kalea, 19. Andoain.

Tel.: 943 575 293 688 618 548

urrats@urratsinprimategia.com

ONDO PASA JAIETAN

943 593 527
Ondarreta kalea,
9-behea
ANDOAIN

- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Pintxoak

Ondo pasa jaietan!

Ondarreta

EROSKI city

Ondarreta kalea, 10-12
ANDOAIN
943 300 760

Ondarreta

Jai zoriontsuak!

Gabilondo
AHOLKULARITZA

Gora Santakruzak!

Kale berria, 1-behea. ANDOAIN
Tel./Faxa: 943 303 025
asesoriagabilondo@yahoo.es

Koadrilen egun handia

Goizetik txarangaren doinuen atzetik saltoka, eta bazkalosteko Dj Bull-en kalejira, horiexek dira koadrila eguneko ekimenik jendetsuenak. Maiatzaren 4an izango da

Olatz Lasa ANDOAIN

Maiatzaren 4an, ostiralarekin, ospatuko da koadrilen eguna. Egitarau oparua prestatu dute, tartean Beñat Beloki gazteak. **Berrikuntzarik ba al da aurtengo egitarauan?**

Orokorrean, egitaraua urteroko berdina da. Zerbait berria gehitzearren, bazkalosteko jokoak berri nahi izan ditugu, urtero berdinak izan ez daitezten. Arratsaldean, Dj Bull-ekin kalejira izango da, eta arratsalde bukera aldera karaoke saioa. Goiza txarangaren atzetik saltoka hasiko dugu, eta amaitu, berriz, kontzertuetan.

Noiz sortzen da giro politagoa, egunez ala gauez?

Goizez zein arratsaldez nahiko giro polita egoten da, baina nire ustez politena arratsaldekoa

izaten da. Dj Bull-ekin kalejiran giro ederra sortzen da. Goizeko giroa hotzagoa izaten da normalean. Bazkariaren ostean animatuago gabiltza denak [kar kar kar].

Noiz zabilzate antolatzaile lanetan?

Gure koadrilatik, Balantzaka koadrila gara, lau lagun gaude antolatzaileen artean. Gu baino gazteagoak diren neska-mutil batzuk ere badabilzate. Denera hamar inguru izango gara koadrila eguneko batzordean.

Noiztik zarete antolatzaile?

Orain dela hiru urte, jai batzordeko kideek antolatzen zuten koadrila eguna. Den dena batera antolatzea lan handia zela eta, gazte jendeari eskaini zizuten jai antolatzeko aukera. Geroztik gu ari gara Santakru-

tzetako koadrila eguna antolatzen.

Egitaraua prestatzen noiz hasten zarete?

Otsaila aldean hasten gara lehen bilerak egiten, eta Santakruz jaiak hasi baino pare aste lehenago ematen diogu amaiera egitarauari, gutxi gorabehera. Modu horretan, dena prest egoten da koadrila eguneko ekitaldi guztiez gozatzeko.

Santa Krutz jaietako egunik handiena al da koadrila eguna?

Gazteen artean, seguraski bai. Jaien erdigunean dagoen



Beñat Beloki antolatzaile taldekoa. AIURRI

Santa Krutz eguna, maiatzak 3, izaten da oro har egunik garrantzitsuena andoaindar askorentzat.

Zenbat jende bildu ohi da koadrila eguneko bazkarian?

Bostehun lagun inguru elkartu ginen iaz Ondarreta ikastetxeko jolastokian.

Inguruko herrietatik ere jendea bertaratu ohi da Santa Krutz jaietara...

Bai, eta nik ere animatu nahi ditut inguruko herrietatik Santa Krutz jaietara etor daitezten. Gainera, aurten ostiralez egokituko da koadrila eguna. Asteke eguna izanik zailagoa dute askok egunez etortzea, eskola eta lana direlako medio, baina iluntzean edota gauean behintzat jendea etortzera animatu nahiko nituzke, gau giro polita eta kontzertu bikainak daudelako.

LEIZARAN 
Gestión Inmobiliaria

Jai zoriontsuak igaro!

Kale Nagusia, 53-behea. ANDOAIN
Tel: 943 591 856
Tel: 619 661 323
e-mail: info@inmoleizaran.com
www.inmoleizaran.com

- Etxebizitzak
- Lokalak
- Alokairuak

ORDUTEGIA:
Astelehenera: 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera: 09:00-19:00
Ostiralean: 09:00-17:00
Larunbatetan: 08:00-13:00

Jai zoriontsuak! 

ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA

adats

Tatoó
Piercing
Laser
Depilazioa

Belabi kalea, 10-behea
20140 Andoain - Tel.: 943 570 796

Gora Santakruzak!

Aiurri Beltz

Taberna

Kale berria 9. Andoain. 943 59 35 49


Zabala
Ordukari Bitxitegia

Ondo pasa Santakruzetan!
Kale Nagusia, 14
☎ 943 593 745
Andoain

Gudari enparantza, 5
☎ 943 332 341
Hernani

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

  **ORAIN GIPUZKOA**

Gora Santakruzak!

ARANBURU

Artekaritza | Aseguruak | Aholkularitza

Kaleberria, 6 behea - Andoain
artekaritza@agencia.axa-seguros.es
☎ 943 590 814 | Faxe: 943 592 403



Erreka jaitsiera

Maidar Arabaolaza eta Garazi Alkain dira Eguzkikoekin batera jaitsieran parte hartuko duten gaztetxoetako bi



Erreka jaitsierak ikusmina piztu ohi du auzotarren artean, baina bereziki dibertigarria izaten da parte hartzaileentzat. AIURRI

Amaia Senperena ANDOAIN

Olazar parketik hasi eta Santa Krutz ermitaraino izan ohi da Eguzki talde ekologistak aspaldian antolatzen duen erreka jaitsiera. Ekologistekin batera gaztetxoek parte-hartzea ohikoa izaten da. **Jende gehiago hurbiltzea espero al duzue, aurten?**

Arabaolaza: Egia esan, bai. Aurten gure ikasturteko jende dezentek izena eman du, beraz, gehiago izango gara aurten. **Zuekin batera doazen sorosleak garrantzia handikoak dira...**

Arabaolaza: Dudarik gabe. Jaitsieran arriskuguneak daude, eta horietan oinez goazen bitartean beraiek gure ontziak behe-bera jaisteaz arduratzen dira.

Bustiko zaretela seguru da, beraz. Alkain: Bai, ia ezinezkoa da jaitsiera busti gabe egitea, ura

hotza egoten da gainera! Baina oso ondo pasa ohi dugu.

Zenbat urte daramatzazue jaitsieran parte hartzen?

Arabaolaza: Behin bakarrik hartu dugu parte jaitsieran. Aurtengoa bigarrena izango da. Alkain: Halaxe da, eta parte hartzeko gogo biziz gaude.

Koadrilan ondo pasatzeko beste modu bat da, ezta?

Arabaolaza: Bai, nahiz eta ura hotza egon, oso ondo pasatzen dugu. Ea eguraldiak laguntzen duen!

Hotzik ez izateko neurririk hartzen al duzue?

Arabaolaza: Neoprenoa eramateen saiatzen gara, baina jantzi berezirik gabe ere parte hartu daiteke. Uneoro ariketa egiten denez, ez da horrenbesteko hotza sentitzen.

Alkain: Egia da, behin uretan zaudela temperaturara egokitu eta ez da hotzik sentitzen.

Ze adin tarteko jendeak hartzen du parte?

Arabaolaza: 16 urtetik gorakoek eta baita helduagoek ere. Eta ikusten jende asko egoten da.

Zer esango zeniekete barandatik begira dauden gainerako koadrilei?

Arabaolaza: Ondo pasatzeko ekintza bat dela. Ez da lehiaketa bat. Anima daitezela, ez diezaiotela hotzari beldurrik izan. Mugimenduarekin azkar batean berotuko gara.

Larunbat arratsalderako plana

Eguzki talde ekologistak jaiaz eta ingurugiroaz gozatzeko plana antolatu du, andoaindar guztiei zabalik dagoena.

Arratsaldeko 16:00tan hasi eta ordu eta erdi luza da plana. Ordu-tegiak:
16:00 Bekoplaza.
16:15 Etxarrira iritsiera.
16:45 Jaitsieraren hasiera.
17:30 Iritsiera herrigunera.



Ondo pasa festetan!
LEIZARAN INSTITUTUA
Plazaola, 23 - 20140 Andoain
Tel.: 943 300 078 - Faxa: 943 300 578
012740aa@hezakuntza.net - www.leizaran.net

- DBH: D erduan
- BATXILERGOAK: Zientifikoa, Humanistikoa, A eta D erduetan
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK: Gizarte integrazioa A eta D erduetan

Xixori
BELARDENDAK ANDOAINEN

Txitibar, 4
☎ 943 245 023

Eskola kalea, 3
☎ 943 590 199

TXITIBAR
Ondo pasa Santakrutzetan!
Zumea plaza, 7 behea
ANDOAIN - 943 570 492
www.txitibar.com

ORMENDI & KIROLAK
AMATXORENTZAT...

Kale Berria, 2
20140 Andoain
943 59 18 06
ormendikirolak@euskalnet.net

Barts poltsak
Txikiak 39,99€
Handiak 44,99€

Roxy
Kamixeta 39,99€
Sudadera 59,99€
Kotakizkoak

ICPA
Kamixeta 29,95€
Traspirablea

Astore
Sudadera 74,95€
Elastikoa, traspirablea

Barandiarani eskainia

Otsailaren 12an hil zen Juan Bautista Barandiaran hartuko dute gogoan Alberto Agirre abesbatzak eta Olagain txistulari elkarteak, Santa Krutz jaietako kontzertuan

Xabier Lasa ANDOAIN

Musika zaletasuna pizteaz gain, herrian musikagintzan nabarmendu diren musikariei gorazarre egitea da kontzertuaren helburuetakoa. Los Alegres orkestina eta Eulogio Saldias, Luis Fraca eta Alberto Agirre Andoaingo Udal Musika Bandako zuzendariak izan dira aurreko urtetan gogoratu diren zenbait musikari eta musika eragile. Bada, aurtengo emanaldian Juan Bautista Barandiaran izango da protagonismoa hartuko duena.

Barandiarani gazte-gaztetik sortu zitzaion musikarako grina, eta atal ezberdinetan jardun izan zuen bizitza guztian: abeslari, abesbatza sortzaile, musika konposatzaile edo moldatzaile... Besteak beste, Andoainen hiru abesbatza sortu zituen, Labor-

deko emakumeekin, La Salleko ikasleekin eta herriko emakume eta gizonetzkoekin. Horietatik, Beti Abeslari izan zen hirugarrena; 1968an jarri zen abian, eta beraz, bere 50. urteurrena egokitzen da aurten. Bost urteko ibilbidea besterik ez zuen egin Barandiaranek zuzendu zuen abesbatzak, baina emankorra izan zen erabat, hainbat sari irabazi baitzituen. Euskal Herrian lehenbizikoetako abesbatza parekidea izan zen, gainera.

Senideei oroigarria

Kontzertuan Barandiaranen senideei esker oneko oroigarria emango diete Beti Abeslari eta Alberto Agirre abesbatzen, Olagain Txistulari Elkartearen, Zumeatarra elkartearen eta Santa Krutz elizaren izenean.

Bi zatiko kontzertua

Lehenengoan, musikariek eta kantariek kantutegi klasikoko piezei helduko diete. Hona, interpretatuko dituzten abestiak: *Minueto* (Vicente Monzon), *Ollagorra* (Isidro Ansorena), *Txistulariak* (Victor Zubizarreta), *Euskal Billera* (Isidro Ansorena), eta, *Sagardotegiko kantak* (Herrikoia).

Barandiaran izango da protagonista nagusia bigarren zatian. Berak sortutako bi abesti eskainiko dituzte: *Andoain* (hitzak, Jokin Sorozabal) eta *Zumeatarra*. Eta hirugarrena, Barandiaranek berak abesteko moldatu zuen *Bilintx* abestia.

Kontzertua, nola ez, Santa Krutz abestiarekin amaituko da. Emanaldia maiatzaren 4an, ostiralarekin izango da.



Alberto Agirre abesbatza eta Olagain txistulari elkarteak elkarrekin iaz. AIURRI



Lehenengotako abesbatza parekidea izan zen Beti Abeslari abesbatza. OTAMENDI

bitoria
arraindegia

Ondo pasa
jaietan!

bitoria
arraindegia

Eskola, 3. 20140 Andoain
Tel.: 943 303 966 - 637 558 005



aldama_tapia
aholkularitza

Gora Santakruzak!

Txitibar plaza 3-behea
ANDOAIN
943 594 476
943 300 167



**TXINDOKI
TABERNA**

JATE
TXEA
TABE
RNA

ONDO
PASA
FESTETAN

**KALE NAGUSIA, 55
20140 ANDOAIN
TEL.: 943 592 954**



Gora Santakruzak!



Amama Klaudia
GASTROBENTA - DASTATZE - DEKORAZIO ETA ARTEA

GOSARIAK - EGUNEKO MENUA - HANBURGESAK
PRESTATUTAKO JAKIAK - BOKATAK - Harategi-Urdaitegia

Zumea plaza, 5 - behea, Andoain
943 031 615 - 607 327 432. www.amamaklaudia.com

Lur

Fisioterapia
Pilates Zentroa
Ixiar Igerategi Lizarribar

Gora Santakruzak!

Denak pol. zb. 207
Andoain
Tel.: 943 592 851
605 763 940



Cambridgeko azterketan
prestakuntzarako zentro
homologatua.

Prestakuntza trinkoa.
Cambridgeko azterketak
eskainean eta irtailan.

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainean

Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839
www.andoainenglish.com

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 26

ANDOAIN Parte-hartzea

Herriguneko zein haur parke estali erabakitzeko parte-hartze prozesua.
Ataria, udaletxea, 08:30-14:00.
Arratsalde: 16:00-19:00.

ANDOAIN Kanpaina

Txakur kaken inguruko informazio kanpaina, Udalaren eskutik.
Allurralde pasealekua, 16:00-19:00.

ANDOAIN Plenoa

Udalaren osoko ohiko batzarraldia.
Udaletxea, 19:00.

ANDOAIN Entsegua

Jaietako danborrada prestatzeko azken entsegua. Kaleberrian, Leitzaran jatetxearen ondoko lokalean.
Herri danborrada, 19:30.
Santa Krutz Peña, 20:30.

OSTIRALA 27

ANDOAIN Parte-hartzea

Herriguneko zein haur parke estali erabakitzeko parte-hartze prozesua.
Ataria, udaletxea, 08:30-14:00.

ANDOAIN Kanpaina

Txakur kaken inguruko informazio kanpaina, Udalaren eskutik.
Trentxikiaren bidea, 10:00-13:00.

ANDOAIN Boto zenbaketa

Haur parkeei buruzko parte-hartze prozesua. Zenbaketa jarraitzeko ekitaldi irekia.
Pleno aretoa, 15:00.

ANDOAIN Erakusketa

"Loturak vs. lokarriak", Letamendi.
Bastero, irekiera ekitaldia. 19:00.

URNIETA Kanpaina

Gure Esku Dago ekimenak bolondresak behar ditu, ekainaren 10erako giza-kate erraldoiari begira. Urnietako taldeak karpa ipiniko du, informazioa eskaintzeko.
Guria inguru, 18:00-21:00.

URNIETA Kontzertua

Lappa musika taldeak disko berria aurkeztuko du. Haiekin batera Physis versus nomos taldea.
Sarobe, 21:30.

**ANDOAIN Haur parkeak estaltzeko parte hartze prozesua**

Astelehenean hasi eta ostirala bitarte, andoaindarrek herriko zein haur parke estali nahi duten erabakitzeko aukera izango dute.
Osteguna, 26. Ataria, udaletxea, 08:30-14:00. Arratsalde: 16:00-19:00.
Ostirala, 27. Ataria, udaletxea, 08:30-14:00. Boto zenbaketa: 15:00.

LARUNBATA 28

ANDOAIN Nerabe eguna

Nerabeen artean euskara sustatzeko Zabalik taldearen egun osoko ospakizuna: bazkaria, jolasak, musika... Informazio osoa azken orrialdean.
Egun osoko ospakizuna.

ASTEARTEA 1

ANDOAIN Jaien atariko

Santa Krutz jaien atarikoan kirolari loturiko hitzorduak, Zumeatarra eta Andoingo Txirindulari eskolaren eskutik.
Krosa Zumea plazatik, 10:30.
Haur krosa Zumea plazan, 11:30.
Txirindularitza Leizaurren, 12:00.

ASTEAZKENA 2

ANDOAIN Jaien hasiera

Jaien xehetasun guztiak erdiko orrialdeetan, gehigarri berezian.
Haur pregoia
Zumea plazan, 16:00.
Pregoa Zubiaburre etxean, 19:30.

OSTEGUNA 3

URNIETA Deialdia

Eguzkitan Blai! udaleku irekietan hezitzaile gisa lanean aritzeko, deialdian izena emateko azken eguna.
lanpoltsa.urtxintxa.eus.

OSTIRALA 4

URNIETA Deialdia

Eguzkitan Blai! eta kirol udalekueetan izena emateko azken eguna.
Udalekuak, ekainaren 25etik uztailaren 27ra arte.
Izen-ematea: Bertan, Lekaio.

URNIETA Kanpaina


Gure Esku Dagoren ekimena, ekainaren 10era begira.
Guria inguru, 18:00-21:00.

ASTELEHENA 7

ANDOAIN Sanjuanak

Txupinazoa nork bota erabakitzeko azken eguna. Pertsona edota elkarte baten alde egin daiteke.
Bastero, Ataria, Andoain.eus.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Lady Bird**


Larunbata, 28:
19:30; 22:00.
Igandea, 29:
19:30.
Astelehena, 30:
19:30; 20:00.

Peter Rabbit


Lar., 28: 17:00.
Ig., 29: 17:00.

URNIETA**SAROBE****El hijo de Bigfoot**

Haurrentzat.
Ig., 29: 17:00.




ZORION AGURRAK



ANDOAIN Oier Muñoz
Oierrek 6 urte bete zituen apirilaren 19an. Zorionak eta ondo ospatu eguna! Etxekoak.



ANDOAIN Haritz
Zorionak Haritz! apirilaren 20an 13 urte bete zenituen. Ederki ospatu genuen elkarrekin. Muxu handi bat etxekoan partez.



ANDOAIN Pello
Badakizu Pitagorasentzat 7a zenbaki perfektua zela? Bada, zure 7. urtebetetzea ere perfektua izatea opa dizugu. Super ondo pasa dezazula zure egunean! Muxuak!!!

Udaberriko erromeria Urnietan

Aurrera Gure Ametsa dantza elkarteak ospakizuna antolatu du datorren maiatzaren 5erako, Urnietan. Honakoa da egitaraua:
10:30 San Juan plazan bilkura. Handik Azkorte Santa Krutz baselizara abiatuko dira. Bertan dantza eta hamaiketakoa.

12:30 San Juan plazara itzulera.

13:00 Dantza saio gidatua Patxi Perez eta Konpainiarekin.

14:30 Jaialdiaren amaiera eta bazkaria Oianumen. Bazkarirako izena emateko azken eguna apirilaren 29a da: agaurnieta@gmail.com.

OHARRA: MERKATU PLAZA

Makaldegian barrakak daudenez, merkatua Goikoplazan maiatzaren 7ra arte.

Ondarretaren 50. urteurrena

Laguntza eskatu dute Ondarreta ikastetxetik: "2019-2020 ikasturtean eskolaren 50. urteurrena ospatuko dugu. Burutu nahi ditugun ekimenen artean argazki erakusketa dago. Horretarako, Ondarreta ikastetxearekin harremana izan duen orori laguntza eskatzera

gatoz. Hau dela eta, 1969-2002 urte arteko argazkiak jaso nahi ditugu. Argazkiak Ondarretako idazkaritzara ekartzea eskertuko genizueke: Astelehenetik ostiralera (09:00/12:30 eta 14:30/16:30)". E-postaz ere bidal daitezke argazkiak: 012779aa@hezakuntza.net.

KARTELDEGIA: ESKUBALOIA, SASKIBALOIA

ESKUBALOIA	Leizaran Horia-Bergara	25-25
SENIOR MAILA, MUTILAK	GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZA	
GIPUZKOAKO KOPA EMAITZA	Urnieta-Bidasoa Irun	22-33
Urnieta-Ordizia	35-32	
ASTEBURUKO PARTIDA	16:00 Tolosa-Urnieta / Lar, 28	
18:30 Munttarpe-Urnieta / Lar, 28		
SENIOR MAILA, NESKAK	KADETE MAILA, NESKAK	
GIPUZKOAKO KOPA	FORU ALDUNDIKO TORNEOA	
ASTEBURUKO PARTIDA	EMAITZA	
16:45 Munttarpe-Urnieta / Lar, 28	Bergara-Leizaran Horia	16-14
JUBENIL MAILA, MUTILAK	ASTEBURUKO PARTIDA	
GIPUZKOAKO TROFEOA, EMAITZAK	17:00 Leizaran Horia-Bera Lar. / Lar, 28	
Irun-Leizaran	30-28	
Ordizia-Urnieta	29-29	
ASTEBURUKO PARTIDAK	SASKIBALOIA, SENIOR MAILA	
19:15 Hettich-Leizaran / Lar, 28	EMAITZA	
12:00 Urnieta-Bidasoa Irun / Ig, 29	Alde-Zaharra B-Ganbara	48-42
JUBENIL MAILA, NESKAK	ASTEBURUKO PARTIDA	
GIPUZKOAKO TROFEOA, EMAITZA	19:15 Ganbara-Bergara / Lar, 28	
Leizaran-Ordizia	30-18	
GIPUZKOAKO KOPA, EMAITZA	SASKIBALOIA, KADETE MAILA	
Urnieta-Usubil	17-28	
KADETE MAILA, MUTILAK	EMAITZA	
FORU ALDUNDIKO TORNEOA	Ama Guadalupekoa-Ganbara	69-22
Leizaran-Tekniner Eibar	39-24	
	ASTEBURUKO PARTIDA	
	10:30 Ganbara-Hernani / Lar, 28	

Jubenil mailako txapelketa

ESKUBALOIA Gipuzkoako Eskubaloia federazioak antolatuta, jubenil mailako mutilen txapelketa jokatu da maiatzaren 1ean Allurralden. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko norgehiagoka izango da. Bi partida jokatu dituzte elkarren aurka. 09:30ean hasita, goiz osoan zehar partidak jokatu dira.



PATXI NIETO

Rock'n'Roll maratoi erdian

LASTERKETAK Patxi Nieto eta Luis Lopez andoaindarrek EDP Rock'n'Roll izeneko maratoi erdian parte hartu zuten Madrilan, joan zen igandean. Lasterketa herrikoia eta jendetsua izaten da, eta horren erakusgarri 35.000 lagunaren parte-hartzea da. 1:49:42ko denbora egin zuen lehenak, 1:53:03 bigarrenak. Argazkian ikusten denez, pozarren zeuden biak.

Pikabea azkarrena izan zen Hernaniko desafioan

HERRI KIROLAK Arizmendi andoaindarrek ezin izan zuen Pikabea gainditu. Aizkoran eta lasterka, bietan, Ereñotzuko kirolari beteteranoa nagusitu zen. Hirurehun lagunaren aurrean lehiatu ziren biak, Galarreta pilotaleku ondoko zelaian



Egurra moztu eta gero, korrika saioari ekin zioten. Irudian bi kirolariak Arizmendiren lagunaren aurretik igaro zirenean. **AJURRI**

Xabier Lasa HERNANI
Rosario Pikabea hernaniarra Jon Arizmendi andoaindarra baino gehiago izan zen bi probatan, aizkoran eta korrika. Pikabeak 24:06ko denbora behar izan zuen 45 ontzako lau enbor eta bi kanaerdiko ebakitzeko; Arizmendik, berriz, 25:14. Aizkoran ez zen hainbesteko aldea sumatu bien artean, baina bestelako kontua izan zen lasterka. Ereñotzu auzoko kirolariak 33:46ko denbora egin zuen ehun metroko eraztunari 70 itzuli emateko. Arizmendik 38:44ko denbora behar izan zuen.

Arizmendi gehixeago izan zi-tekeela aizkoran, hori espero zen. Baina desafioan ez zen hala izan, eta Pikabea, oso atleta bikaina dela erakustez gain, aizkoran aisa aritu zen.

Joan zen larunbat arratsaldean 300 ikusle bildu ziren Jauregi jatetxeko zelaian. Ikuskizunarekin gozatua hartu zuten, nahiz eta ia norgehiagoka osoan Pikabearen nagusitasuna ez zen zalantzan izan. Bi kirolariek zaletu ugari erakarri zituzten joko zelaira, eta etengabe jaso zituzten animoak. Desafioko argazkiak eta bideoak aiurri.eus gunean ikusgai daude.



Jon Arizmendi eta Rosario Pikabea, desafioa amaituta. **AJURRI**

Proba bakoitzeko emaitzak

- Aizkora: 45 ontzako 4 enbor. 2 kanaerdiko. Saillapena: Pikabea 24:06 minutu. Arizmendi 25:14 minutu.
- Korrika: 100 m.-ko eraztuna, 70 itzuli. Saillapena: Pikabea 33:46 minutu. Arizmendi 38:44 minutu.



Herri-kirolarien bilkura Eula sagardotegian

HERRI-KIROLAK Joan zen larunbatean Juan Iguaranek Urnietan bildu zituen Euskal Herri osoko herri-kirolariak. Horietako batzuk plazaz plaza dabiltza, eta beste hainbat gazteago zirenean ibilitakoak dira. Arabako ordezkariak ere ez zuten hutsik egin



Hirurogei lagun inguru bildu zituen Juan Iguaranek Eula sagardotegian. Urteroko hitzordu bilakatu da herri-kirolarientzat. AIURRI

Joxeba Lizeaga URNIETA

Herri-kirolei dagokionez, esan genezake Araba dela "aitaren zazpigarren alaba", bertan oraindik ez baita lortu beste herrialdeetan duen presentziarik izatea, eta herri-kirolarien kopurua ere tradizionalki oso txikia izan da, eta egun ere horrela da. Arabak eman dituen bi harrijasotzaile ezagunenetakoak dira Isaak Martinez "Gesaltzako Tigrea" (Gesaltza- Añana, 1963) eta Carlos Atxa (Apellaniz, 1958). Badi- ra urte batzuk plazak utzi zituz- tela, baina herri-kirolen mundua odolean daramate, eta Eulako hitzordura ez dute hutsik egiten. **Tradiziorik gabeko herrietan jai eta harria jasotzen hasi zirenetan, zer dela eta?**

Carlos Atxa: Luis Mari Bengoa ordurako herri-kirol ekitaldiak antolatzen hasi zen, eta haren eskutik hasi nintzen. Gogoan dut lehenengo erakustaldia Jaun- soro Gauna herriko gazte baten aurka jokatu nuela. 80 kiloko garagar-zakua altxatu behar izan genuen, eta irabazi egin nuen. Bengoak Aretxa harrija- sotzailearengana eraman ninduen prestatzeko. 18 urte nituen. Gesaltzako Tigrea: Antzeko ka- sua da nirea. 16 urte nintuen



Gesaltzako Tigrea eta Carlos Atxa arabarrak. AIURRI

harri-jasotzen hasi nintzenean, aurrez, 13 urtetatik butano bantzaile lanetan eta gatzarekin betetako zakuak garraiatzen hasia nintzen, asteburuetan. Garai hartan, Nafarroan, Biz- kaian eta Gipuzkoan indarrean zegoen gure kirola, ez horrela Araban. Araba osatzen duten zazpi kuadrilen arteko txapel- keta antolatzen hasi ziren, eta Zumaiako Gorritik entrenatu ninduen hasiera hartan. Solda- dutzara joan aurretik 150 kiloko harria altxatzea lortu nuen.

Nola ikusten duzue herri-kirolen egoera Araban?

C.A.: Penaz. Ez daukate guk geneukan ilusiorik, oso gogorra baita kirola, eta norberak landu beharrekoa. Erakustaldietatik dirua lortzeko aukera badago, ezin gintezke kexatu, baina Ara- ban oso zail dago. G.T.: Niri kultura eta lekuak ezagutzeko aukera eman dit kirol honek, eta berriro jaioko banintz ez daukat zalantzarik berriro harrijasotzailea izango nintzatekeela.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ARETO FUTBOLA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK

Euskalduna-Ostadar	4-2
Urnietan-Hernani	1-2

SAILKAPENA

1 Deusto	62 puntu
3 Euskalduna	57 puntu
9 Urnietan	32 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00	Martutene-Euskalduna / Ig, 29
17:40	Santo Tomas-Urnietan / Ig, 29

ERREGIONAL MAILA, KOPA

EMAITZAK

Landetxa-Euskalduna	2-0
---------------------	-----

SAILKAPENA

1 Astigarragako Mundarro	21 puntu
2 Euskalduna	21 puntu
3 Landetxa	18 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Euskalduna-Sporting / Lar, 28
-------	-------------------------------

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZAK

Urnietan-Anaitasuna	1-2
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Hondarribi-Urnietan / Ig, 29
-------	------------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

IGOERAKO LIGAXKA

EMAITZAK

Beti Ona B-Urnietan A	1-1
Danena-Euskalduna A	1-3

SAILKAPENA

1 Euskalduna A	32 puntu
2 Beasain	31 puntu
3 Urnietan A	25 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00	Urnietan A-Danena / Lar, 28
17:45	Euskald. A-Aloña Mendi / Lar, 28

KOPA

EMAITZAK

Euskalduna B-Goierri	4-1
Lazkao-Urnietan B	1-6

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:30	Urnietan B-Idiazabal / Ig, 29
16:30	Billabona-Euskalduna B / Ig, 29

JUBENIL MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Euskalduna-Goierri Gorri	1-1
--------------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Amara Berri-Euskalduna / Lar, 29
-------	----------------------------------

KADETE MAILA, MUTILAK

OHOREZKO MAILA

EMAITZAK

Mundarro-Euskalduna	2-0
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

11:30	Euskalduna-Hernani / Ig, 29
-------	-----------------------------

KOPA

EMAITZAK

Urnietan-Añorga (4.multzoa)	1-1
Tolosa-Euskalduna (7.multzoa)	2-4

ASTEBURUKO PARTIDAK

09:30	Vasconia B-Urnietan / Lar, 28
12:30	Euskalduna-Billabona / Lar, 28

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Mutriku-Urnietan	1-1
------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00	Touring-Urnietan / Lar, 28
-------	----------------------------

ARETO FUTBOLA

ANDOAINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

A TALDEA

Ekhia-Keler	6-2
Dad Kutxa-Hogar Extremeño	8-1
Centro Extremeño-Akerbeltz	1-7
Txalaka-Lanbroa	7-3

B TALDEA

Pausoka-Ganbara	5-2
Olajauna-Ekaitz	7-5
Academia London-Gorostidi	7-10
Irunberri-Powerade	5-1

GRAVNIko finalean dira

PILOTA Gipuzkoak, jardunaldi baten faltan, finala jokatzeko txartela lortu du. Poztekoa da UKeko bi pilotari arituko direlako txapela lortu nahian. Hots, Julen Loitegi eta Eñaut Esnaola urnietarrak. Loitegi eta Esnaolak Errioxa garaitu zuten (40-34), 80 minutuko partida luzean. Jardunaldi baten faltan, Gipuzkoa finalean arituko dela ziurra da.



Errefuxiatuen aldeko martxa Andoaindik igaroko da



Erredakzioa ANDOAIN

Mugak Zabalduz errefuxiatuen aldeko martxak geldialdia egingo du Andoain, larunbat honetan. 2016 eta 2017 urteetan, errefuxiatuekiko elkartasun karabanek Grezia eta Melilla izan zuten helburu. Ohar bidez zabaldu dutenez, "Helburua, EBren politika ekonomikoek gerrak sortarazten dituztela salatzea eta politika geo-estrategikoen ondorioz euren herria uzten duten milaka pertsonen mugen itxieren eta Atzeritar Legeen ondorioak pairatzen dituztela gogoraraztea zen".

Larunbatean Andoain

Aurten, karabanak Euskal Herriaren barrena egingo du bere ibilbidea. Apirilaren 28an karabanak Hendaia izango du abiapuntu, migratzaileen atxikitze gunearen parean. 13:00etan karabanak Andoain egingo du geldialdia. SAPA enpresaren ekoizpenaren zati bat armagintzara bideratzen dela eta, kontzentrazioa egingo dute bertan. 13:30ean Sapatik Zumea plazara abiatuko dira. Karabanak, ondoren, Iruñeko bidea hartuko du. Informazio gehiago: mugakzabalduz.eus gunean.

AZKENA

Euskararen aldeko festa koloretsua larunbatean

Eguerdian emango diote hasiera jaiari trikijirarekin, Juanita Alkain plazan. Ondoren, bazkaria eta jolas ezberdinak egingo dira herriko txoko ezberdinak bisitatuz. Arratsaldean, Andoain kolorez jantziko dute Holly festarekin

Olatz Lasa ANDOAIN

Nerabeen artean euskara sustatzea da Zabalik taldearen helburu nagusia. Hamabost nerabek eta sei hezitzailek osatzen dute taldea, eta astean behin elkartzen dira Andoaingo gazteen artean euskara sustatzeko ekimenak antolatuzko. Horieta bat da larunbat honetan izango dena.

Lidergotza, ekintzailetza eta berrikuntza gradua ikasten ari diren sei hezitzailek gidatzen dute taldea. Horien artean da Ekiñe Izagirre, eta azaldu duenez, "nerabeei bozgorailu lana egin nahi diegu, beraiek aktibo eta ekintzaile bilakatzen lagunduz". Proiektu bat hutsetik abiatuta nola aurrera eramaten den ikasi dute nerabeek festa antolatzarekin batera. Lehenik, zein ekimen egin pentsatu dute ideia ezberdinak aztertuz. Bigarrenik, kalera irten dira nerabeei euskara sustatzeko zein ekimenetan parte hartu nahiko luketen galdetzerara, eta azkenik, festarako aurrekontua egiten ikasi dute. Orain, marketing lanean ari dira buru-belarri. "Ideiak guk geuk proposatzen ditugu, eta hezitzaileek ideia horiek aurrera eramaten laguntzen digute", azaldu du June Korta nerabeak.



Zabalik taldeko nerabeak eta hezitzaileak asteroko bilera batean. EKIÑE IZAGIRRE

Aita Larramendi ikastolako, Ondarreta ikastetxeke eta La Salle Berrozpe ikastetxeke nerabeak dira Zabalik proiektuan parte-hartzen dutenak, eta elkarren artean harremanak sendotzeko bide izan dela adierazi dute. "Lehen bistaz baino ez ginen ezagutzen, orain konfiantza gehiago dago gure artean", esan du Aizpea Miner nerabeak.

Nerabeak eta euskara

Andoaingo nerabeen artean euskara gutxi praktikatzeko delakoan dira Zabalik taldeko gazteak. "Gure helburua herrian euskara bultzatzea da, ikusten baitugu ez dela askorik erabiltzen nerabeen artean. Helburu horrekin gustura eta pozik etortzen gara asteroko zitara", argitu du Minnere. Euskaraz gutxi hitz egi-

Egun osoko ospakizuna Andoain

- 12:00** Trikijira Juanita Alkain plazatik hasita.
- 14:00** Bazkaria Bekoplazan.
- 17:00** Herri-kirolak Zumea plazan.
- 19:00** Elektrotzaranga eta Holly festa Zumea plazatik abiatuta.
- 23:00** Kontzertuak Bekoplazan:
 - Parrapas erromeria.
 - Dj Txurru.

tearen arrazoiaz galdetzean, lagun taldeak eragin handia duela horretan adierazi dute taldeko nerabeek, sarritan euskaraz mintzatzeari "paso" eginez.

Holly festa

"Andoain euskaraz koloreztatuz" da Zabalik taldearen leloa, eta mezu hori zabalduz antolatu dute Holly festa. Elkarri koloretako hautsak jaurtitzeko datza ekimena. "Koloretako hautsekin herriari bizitasuna eta euskarari alaitasuna eman nahi diegu", azaldu du Izagirrek. Hori dela eta, kamiseta zuriekin joateko deia egin dute. Euskara sustatzeko bestelako ekimenak ere egingo dituzte, hala nola, euskal abestiak ipiniko dituzte herrikiroletan nahiz egiten diren joko ezberdinetan. Herriko eta inguruko nerabeak festara etortzera animatzen dituzte.



Pirritx, Porrotx, Marimotots

Maiatzak 18

OSTIRALA

7€

17:30 URNIETA

Egape ikastolako jolastoki estalia

Aurre salmenta:
URNIETA

- Bikain okindegia, San Juan Plaza.
- Xauxar Taberna, Idiazabal Kalea.

ANDOAIN

- Aiurri, Arantzibia plaza.
- Ernaitza Liburudenda, Zumea Kalea.